

2009KO OTSAILAK 26

26 DE FEBRERO DE 2009

ORGANO: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA

SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO OTSAILAK 26

DIA: 26 DE FEBRERO DE 2.009

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Andoni ETXANIZ OSA
Miren Nerea EPELDE AZKUE
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Pilar ETXABE IRIONDO
Cristina FORCADA UNANUE.

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Paloma HEREDERO NEGREDO
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

IDAZKARIA: LIOBA MAIZA RECONDO
SECRETARIA

Alkate jaunak bilera eratutzat ematen du. Se da por constituida la sesión por el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA: Arratsaldeon, ohizko plenoari ekingo diogu otsailak 26 den honetan, eguneko aztergaia beti bezala aurreko bilerako aktaren onarpenarekin hasiko garelarik, Bide batez esan nahi dut azkenengo Udal batzarraren akta ez daukagula denborarik eman ez duelako ondo bukatzeko, usten dut gainera, oker ez baldin badago, gaur bukatu duela eta bueno akta hori onartuko dugula datorren plenoan, dakizuen bezala luzea izan zen, eta hori redaktatzeko ba.. luze jo du.

Beraz, onartzen duguna da azaroaren 27an egin zen ohiko plenoaren akta, bateren batek zerbait esatekorik, M. Eugenia?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezerrez, Cristina? Ezerrez,; Andoni? Ezerrez, guk ere gure aldetik ez daukagu ezer esatekorik, ba.. besterik gabe Hirigintzara pasako gara,

Aurrenengo puntua:

TRUKEA: UDALA ETA PROMOCIONES SALBIDE,

Hau dakizuen bezala, hainbat alditan hitzegin izan dugu, batzorde ezberdinetan truke honi buruz, baino azkenengo batzordean aipatu zen bezala, ba... notaritzak edo erregistroak egindako aukera bat aztertuz, edo berak esandako exijentzi bat aztertuz, badaezpada plenora ekartzeko erabakia hartu genuen, edonola ere, guzti hau esplikatzeko, nik ez dut gehiegi esplikatuko, Jon Gil gurekin aurkitzen da eta berak esplikazio zehatzak emango ditu, Jon Gilek eta Andonik ere, bion artean esplikazioak emango dituzue,

JON GIL, HIRIGINTZAKO TAG.: Kaixo, nere txostena denok irakurtzeko aukera izango zenutela pentsatzen dut, nere txostenean permuta bideragarria izateko onarpena Alkatetzaren Dekretuaz emateko da nere proposamena, araudia daukagu Kontratazio Publikoaren Legean eta Ley de Bases de Regimen Lokalean. Notaritzara joan nintzen ba... operazioa pixkat montatzeko eta Notariak, Idurrek, eskatu zigun ziurtagiri

bat Udal osoak baimena ematen diola Alkateari, hau sinatzeko, eta nere galdera izan zen zergatik Legeak hori ez baldin badu esaten? Eta esan zidan hori dela Erregistradorearen irizpidea.

Erregistradorearekin hitzegin ondoren bidali nizkion txosten guztiak, nere txostena, Luciano Pagaeguiaren txostena, Kontuhartzaitzaren txostena eta berak mantentzen du onartzeko organo kompetentea Udal osoa dela.

Berak esaten du permuta honen bitartez, udal lur ondasun batzuk permutatuko direla eta hori ez dela ondasun bat eta ondasun bat ez den ezkerro, ba.. kompetentea plenoa dela. Ni horretan ez nago ados, nere ustetan permuta hau bideratzeko dekretuaren bitartez egin behar da, hala eta guztiz ere nere ustetan ez da txantxetako gauza, dekretuaren bidez onartzen baldin bada eta eskuraturaren baldin bada joango da jabetzako erregistrora eta bere kalifikazioa ezetzkoa izango da, eta ezingo da permuta egin, eta ezingo da inskribatu beraz, eta Promociones Salbidek ezin izango ditu sinatu Babes Ofizialeko etxebizitzaren kontratuak.

Horregatik, Iñakikin hitzeginen atzo, esan nion igual komenigarria litzatekeela Erregistradorearen irizpidea mantendu, nahiz eta ni horrekin ados ez egon, eta udal osoaren bitartez onartzea permuta.

Permutaren asuntia da, gaur egun udalak dauzka bi eskubide mota, bata hirigintzako hitzarmenaren bitartez etortzen diren eskubideak dira 100 m² lokal bat eta 104,25 m² beste lokal bat, hau txosten teknikoan agertzen da adierazita, eta bigarren eskubidea daukagu birpatzelazio, bueno, konpentzazio proiektuaren ondorioz udalak dauzka lehenengo partzelan, eraikigarri diren lehenengo partzelan % 0,96 aren eskubidea eta bigarren partzelan, Babes ofizialeko sei etxe zeuden bigarren partzelan % 16,54ko eskubideak,

Orduan, Promociones Salbideko ordezkaria etorri zen eta eskatu zigun idatzi baten bitartez permuta bat bideratzea; Promociones Salbidek 233 m² tako lokal baten truke lortuko lituzke udalaren bi proindibisio horiek eta udalaren, eta udalak eskueran dauzka 100 m² lokala eta 104,25 m² lokala. Honen azterketa egin ondoren argi daukagu, daudela alde batetik 204,25 m² eskubide bat lokal batean izan beharko duena, hitzarmenaren bitartez lortuta, eta hori udal ondasunaren, Udal Lur Ondasuna izango da, Patrimonio Municipal del Suelo da, beste 29,36 m²ak ez dira neure ustetan Udal Lur Ondasunen kalifikazioa jasotzeko behar dituen ezaugarriak, ez dagoelako horrela markatuta Lur Zoru Legean eta bere jarraitzeko erreglamenduan.

Orduan, permuta bideratzeagatik izango litzateke alde batetik 29 m² horiek baloratu beharko liriateke eta bestaldetik baloratu beharko liriateke Udalak dauzkan bi proindibisio horiek 0,96 enak eta 16,54 ehunekoak. Balorazio hauek txosten teknikoaren bitartez egin dira eta balorazioaren ondorioz 0,96ko eskubideak baloratu ditu Luziano Pagaegui 46.586,26 €tan; % 16,54ko partizipazioa, partizipazioaren balorea bere txostenean 0 €koa da; txosten horrek adierazten du partzela... babes ofizialeko etxebizitzak

eraikitzeke partzela den ezkerro, balorazioa negatiboa dela, horregatik 0€ jarri dizkio, eta bestalde 29,36 m² lokal bat Promociones Salbiderena baloratua izan da 44.098,72€tan, orduan permuta izango litzateke bakarrik bi proindibisio hauek eta 29,36m²etatik aldatuz; beste eskubidea beste 204,25 m²ak ez daude permutaren barne sartuta zeren etortzen dira Hirigintzako hitzarmenetik, horiek zuzenean Patrimonio Municipal... Lur Ondasunen barne sartzen dira, zein da permuta hau bideratzeko prozedura? Alde batetik jakin behar dugu zein den kontuhartzaitzaren txostena, non ikusi daiteke indarrean dauden aurrekontuetan diru sarrera arruntak dira 10.588.818€takoa, udalaren balorazioa, udalaren eskubideak daude baloratuta 46.586,26€tan orduan ikus daiteke dela aurrekontuetatik % 10etik behera, orduan ez da eskatu behar permuta egiteko baimena Diputazioari baizik bidali behar zaio permutaren espedientea, behin permuta bideratua izan da.

Gainera bi, bai udala eta bai Promociones Salbideen eskubideak, eskubideen arteko diferentziak, baloratzeko diferentziak ez du %40 a pasatzen, beraz, egin daiteke araudiaren arabera egin daiteke permuta, permuta bideratu daiteke.

Nik garbi utzi dut nere txostenean 29,36 m² horiek ez direla Udal Ondasunen sarean sartzen, Legearen barne ez dagoelako kobertura hori, baina jakin da zein den egoera gaur egun dauzkagun, dauzkagu promotore batek dauzka eraikin batzuk egin da, eraikin hauen artean Babes ofizialeko etxebizitzak eraikita Lur Publikoa dagoen partzela batzuetan. Hori horrela izan da eta hori horrela den ezkerro, hau bideratzeko nere gomendioa da, jakin da nere txostena dela baietzkoa bakarrik permuta... bueno nere txostena baietzkoa da, baina kontutan izan da ez dela momentu honetan Udal Ondasunen barne sartzen 29,36 m² horiek; horregatik alde horretatik nere txostena ez da baietzkoa; bakarrik alde horretatik; orduan hori bideratu ahal izanez gero zuen erabakia hori baldin bada, izango litzateke ondorioz, 29,36 m² horiek kalifikatu beharko liratezke, Udal Lur Ondasun bezala, azken finean da lokal berdina, 233m²tako lokalak dauzka behe solairuan 176 m², ez itxoin, 164,74 m² eta solairu tartean 68,87 m²; lokala bera da orduan zuen erabakia izango da hori bideratu ala ez; jakin da zeintzu diren gaur egun dauden, dauden egoerak.

Jabetzako erregistroko, bueno erregistrokoak M. Begoña Ruizek esan dit, bere ustetan 29,36 m² horiek, ba.. baita ere Udal Lur Ondasunen barne daudela sartuta, ni horrekin ez nago ados, baina momentu honetan usten dut ez daukazuela beste aukerarik, badakizue Promociones Salbidek beste eskaera batzuk egin dituela, eta beste eskaera horiek nere ustetan eta horrela prestatu dut nere txostenean, nahiz eta ez adierazi horrela, aurrerako beste pauso bat beste momentu baterako utzi beharko da, momentu honetan Babes ofizialeko etxebizitzak sinatu ahal izateko Promotore izan behar da Lur horien ehuneko ehunaren jabea eta hori inskribatuta egon behar da Jabetzako Erregistroan, orduan gauzak pixkat

bideratu ahal izateko Promotorearentzat; horrela egin dut nere txostena eta zuen erabakia izan da beti jakin da zortzigarren xedean agertzen den adierazpena,

Barkatu, gauza bat gehiago, hau onartzen baldin baduzue izendatu beharko zenukete Alkatea, kontratu horiek dokumentu publikoetan sinatzeko konpetentea bezala eta nik, nere txostenean argi utzi dut zeintzuk izan beharko lirateke dokumentu horretan agertu beharko ziren xedeak; bai kargaren alde, bai inskribatuta dauden erregistralki karga batzuk daude inskribatuta, horiek ez daude euskaratuta, jabetzako erregistroan dena erderaz agertzen da.

Hor badago diferentzi bat bi mila eta pico eurotako, hori egin daiteke, bai Alkateari esan eskritura publiko horretan, Promociones Salbidek ordaindu beharrekoak edo bestela egin daiteke bi mila eta pico euro horiek eman ba... behin behineko urbanizazioko likidaziora; gaur egun daukate urbanizazioa oso aurreratuta eta abalak badaude nere ustetan hori, bi mila euro horik ba... bermatzeko.

Edozein kasuan, hau onartzen baduzue ere bai, lokalak oraindik ez daude eginak, ez daude eraikita eta legearen arabera, ba.. berme batzuk aurkeztu behar ditu, berme horiek esan daitezke bai abal bankario batzuetan edo bai seguru batzuetan, hori txostenean agertzen da baita ere, eta ezer gehiago,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eskerrik asko, Jon; Bateren batek zerbait adierazteko, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Egia da, guretzat presazko kontua badela, oraindik ere sinatu ez diren kontratu horiek etxebizitza babestuen jabe izango diren horiekin, sinatu gabeko kontratuak lehenbaitlehen sinatzea, gure ustetan adjudikazio prozedurak luze baino luzeago jo duelako eta badelako urte bete baino gehiago iragarri zela, zozketaren zerrendak egingo zirela, zerrendak egin, onartu, zozketak egin, etxebizitzak konkretuki adjudikatu eta gaude 2009ko otsaila amaitzen, eta oraindik kontratuak formalizatu gabe.

Hori hala izanik, hasteko azpimarratuko nuke egia dela alderdi horretatik urgentziak badirudiela nahikoa justifikatua, baina berriz ere eta beste behin ere ba... diktaminatu gabeko kontu bat datorkigula pleno honetara eta ez dela lehen aldian, beste zenbait kasu ere eman dira azken urte honetan, edo urte t'erdi honetan, eta ez zaigu iruditzen dinamika sana denik, ze.. gainera diktamenik gabeko gaiak oso desberdinak izan dira eta kasu honetan ba.. VPO-ko etxebizitzan zain dauden horiei erantzutea baldin bada arrazoa, beste batzuetan izan da kontraturik gabeko esleipenak egin direla ba... 30 mila € tako lanak egiteko artxibo historikoan eta lanak eginak daudenez, bateren bat faktura hori kobratzeko zain dagoela, alegia,

Hori esan da kezkatzen gaituena da zuk oraintxe esan duzun bezala ba.. txostenak irakurri ditugu, txosten luzeak eta oso teknikoak, eta errazak ere ez ulertzeko, bapatekotasunez, baina bueno ba... txostena ez dela erabat aldekoa. Salbuespen bat ezartzen diozula eta salbuespen horrek suposatzen duela ba... sinatzen duen teknikoak nolabaiteko, "baina" bat jartzen diola gaiari eta dihoa 29 m2 horien izaera juridikoen aldetik.

Ez zait argi geratu zein den azkenean hartu behar dugun erabakia, den... alde batetik den Alkateari Dekretu bitartez egin dezan baimena ematea edo den zuzenean guk akordioa Udal Batzan hartzea.

Eta bestetik, txostenak markatzen duen bezala 29m2 horien izaera juridikoak eragozten baldin badu nolabait erabaki honen osotasuna, akordio berdinean hartzen dugu 29 m2 horiek Lurraren Erreserba Kalifikaziora pasatzea edo hori aurrez hartu beharreko erabaki bat izan beharko litzateke, gero erabaki horren gainera permutarena hartzeko, edo dena erabatera egin daiteke?

Eta azkena, balorazio kontuetan sartzeara oso zaila da, Lurraren balorazioa merkatuak markatzen du eta formula konplikatu baten bitartez kalkulatu da eta ondo eginak egongo dira... baina atentzioa deitzen digu 29 m2 horien balorazioa ba.. ia-ia bere osotasunean, udalari dagozkion portzentaien balorazioarekin bat etortzea, kasualitatea ote?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, nik, bai.. Jon zuri hitza emango dizut, baina zuri hitza eman aurretik, bakarrik kontutxo bat diktamenari dagokionez,

Hau da aurreko astelehenean tratatu zen gai bat, egia da ez zela jarri diktamen modu bezala bidali zenean gai ordena, baino egia da diktamenak egiten direnean izaten direla alde aurretik gaia tratatua izan dadin batzordetan, eta gaia tratatua izan zen batzordean, beste gauza bat da zuek ezin izan zenutela etorri gaia ikustera, baino gaia ikusia dago,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, baina gaia ikustea gauza bat da, horrekin informazioa jasotzeko aukera izaten dugu baldin eta batzordera etortzea baldin badaukagu, (ezin izan genuela esan dudana bezala), baina bestalde, diktamena botatzen ez bada ez daukagu edo ez gara jabetzen gai horrek plenora igotzeko bokaziorik daukanik,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Jon,

JON GIL, HIRIGINTZAKO TAG.: Mila esker,
Nik beste gauza bat neukan esateko, % 16,54ko eskubide hori ezin da... lehiaketan atera egin behar da, ezin da permutatu, baina, baita ere arrazoiak

da, bueno arrazoia izan daiteke, hori zuen erabakia da, bere balorazioa 0€koa izan dela eta edozein kasuan Promociones Salbide dela bere komuneroa, bere komuneroak dauka –retracto de comuneros- deitzen den eskubidea, gauza da txosten teknikoak 0€tan baloratzen duela, nik hor ezin dut ezer esan, ez naiz konpetente horretarako, esango nukeen edozer gauzak ez luke baliorik izango, ez da etorri Luziano Pagaegui, baina bera, ez dakit, berak txostena horrela utzi zuen egina eta ni hor ezin naiz sartu, ez ni ez eta Idazkaritzatik.

Akordio mota erregistradorak argi utzi du zer nahi duen entzun eta zer nahi duen ikusi, ni horretan esan ez nagoela ados, berak nahi du plenez bideratzea akordio hori, permuta hori, nik berriro esaten dut ez nago ados horrekin baina berak eskatu du eta filtro bat da, eta da behin betiko filtroa egiten du berak, ez baldin badago honekin ados kalifikazioa ezetzkoa izango da, horren kontra errekurtsio bat egingo dugu, berak intepretatzeko gauzak eta tresnak badauzka eta hori ezingo da inskribitu azkenean eta Promociones Salbideren eskubideak ezingo dira... eta Udalaren eskubideak ezingo dira gauzatu eta ezingo dira sinatu Babes ofizialeko etxebizitzaren kontratuak.

29,36 m² lokala, lokal bat bakarrik egon daiteke Udal Lur Ondasun bezala, nik hau Diputazioko teknikariek hitzegin dut, beraiek ez diote arazorik ikusten, zeren edozein kasuan nik prozedura beraiekin tratatu dut, jakiteko zer bidaliko diegun eta jakiteko bidaliko diegunari adostasuna emango zioten ala ez? Eta beraiek ez zioten horri inolako arazorik ikusten, baita ere arrazoia da Eusko Jaurlaritzak dela ba... Tribunal Vasco de Cuentas da azkenengo konpetentea hau fiskalizatzen horregatik nik ba... nolabaiteko ba... baldintza jarri dut, ez baldintza baina adierazpena egin behar izan dut, ze akordio mota esan dut Udal osoaren akordioa eskatzen du erregistradoreak, 29,36 m² lokala ez da Patrimonio Municipal de Suelo, baina izan daiteke kasu, oso berezia delako, oso kasu berezia delako, permuta honen baldintzak oso zailak dira, ez dakit, nola onartu den Lur Publiko batean promotore pribatu batek eraiki ahal izatea eta nola promotore horrek lortu duen Eusko Jaurlaritzaren kalifikazioa, guk zozketa egin genuen eta horren ondorioz, ni orain gutxi hasi nintzen lana egiten, eta etorri bezain laister zozketa prestatzeko eskatu zidaten, eta zozketa prestatu nuen eta ez nuen denbora izan, denbora fisikoa ez zen egon hau ikusteko, ikusi nuenean ba harrituta geratu nintzen, harrituta geratu nintzen,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu, zer esan nahi duzu ez duzula ulertzen Lur Publikoaren gainean nola eraiki dezakeen? ¡eh! Cualquier caso portzentaia horiekin gu proindiviso izango ginateke, ez? Partzelazioaren beste gainontzeko onuradun edo jabe bezala?

JON GIL, HIRIGINTZAKO TAG.: Bai, barkatu, udalak dauzka (hau nere eskuetan da) udalak dauzka eskubide batzuk baina ere badauzka ere karga batzuk eta momentu honetan etorri daiteke Promociones Salbide esaten ba... momentu honetan eraiki den prezioa hau dela eta Udalak badauzkala % 0,96aren ordainketa beharra.

Orduan permuta hau bideratzeko zaila da, errazena lehiaketa bat atera 0€tan edo teknikoak emango dioten balorearekin eta beste jabeak izango du –retracto de comuneros- eskubidea.

Eta balorazioa kasualitatea den ala ez, nik ezin dut hor hitzegin zeren ez dago teknikaria hemen, hemen hori erantzun ahal izateko.

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Eskerrik asko Jon, Cristina zerbait esateko? Ez; Andoni?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bueno, gaia diktaminatu gabe etorri baldin bada, izan da diktamina bera ere prestatzeko denborarik egon ez delako. Kontua da teknikariak Jon-ek esan digun bezala, hau horrela egin behar izatearen arrazoia da erregistradoreak, berak, berarekin harremanetan jarri garenean guk berez aureikusi ez genuen betebeharrak, legeak horrela aurreikusten ez duelako, ba.. betearazten ari zaigulako, azken finean berak duelako eskumena ba.. zer eskatu udalari permuta hau aurrera eramanez ahal izateko.

Beraz, guk jakidun gaur ohiko plenoa egitea tokatzen zela eta zer baldintzak jartzen ari zitzaizkigun Erregistrotik ikusita, bueno gai nahiko aldiz ere tratatu dugu eta azken finean hitzarmen urbanistikoa jasotzen dena gehi ba... portzentai txiki horien permuta egitea zela, hau egiteko bere garaian ere egin ziren balorazioak, orain dela urte batzuk, teknikari berak egin zuen, gaur egun aktualizatu dira eta gaur egun ekartzen dugun planteamentua ez da berria, planteamentua aspaldi egin dago, horrela baldin badator da, diktaminatu gabe baldin badator da agente externo batek jarri dizkigun baldintza batzuk eta espero ez genituen baldintza batzuk, inolaz ere ba... ez dakit, ez diktaminatzeko inongo borondate berezirik daukagunik.

Norbaitek behar hori ezin besteko ikusten baldin badu, ba.. bueno hurrengo hirigintza batzordean, astelehenean, diktaminatu daiteke eta hurrengo ostiralean, berriz ere hemen egon gintezke gai berdinarekin, parametro berdinetan, ez ohiko pleno bat egiten, baino guri iruditzen zitzaigun exekutiboagoa zela ba.. gaurko ohiko plenora ekartzea gaia nahiko ezaguna badelako eta gaiak ere duen inplikazio soziala ere nabarmena delako, eta azken finean ahal den neurrian arazoak bideratzeko gaude eta hori izan da gure borondatea, nahiz eta jakin detaile batean

akatsa egina egon daitekeela baina beste era batera egiteko aukerarik ez dugu eduki, zeren hau ahalbidetzeko erabakirik plenoak hartu beharrik ez zeukan, baina hartu beharra daukagula aste honetan bertan adierazi digute eta horregatik gaude, gaur hemen, adierazi ondoren ahalik eta modu eraginkorrenean bideratu nahi izan dugulako,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Azkenengo txanda irekiko dugu, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Egia da gaur ohiko plenoa tokatzen zela, baina egia da joan den hilean ere tokatzen zela ez zela egin, eta egia da joan den astean ez zela tokatzen eta aurrekontuak aprobatzeko pleno bat egin genuela; esaten dut berriz ere: nahiko atzerapen darama eta gure ustetan, ikaragarria, kontratu horien sinadurak eta beraz, horren ildotik baietzko botua izango duzute, guria, baina horrek ez du esan nahi eta aste honetan esan dizuelako erregistroan..., es que... orain arte denbora egon da eta edozein modutara ba.. ohiko plenoa izan gabe izan zitekeen datorren astean ez ohikoa ere...; total, hemen gaudenez, zertarako etorriko gara hau tratatzeko datorren astean?; eta nahi dut nabarmendu hain “ez ohikoa” ez den dinamika bat bihurtzen ari dela diktamenik gabe ekartzera gaiak plenora, noizean behin ttaka, ttaka...; beti dago arrazoia... eta gauza batetan arrazoia ematen dizut, zeren horrela... “gauzak askozaz exekutiboak dira”, dudarik gabe...

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Beste bateren batek, zeozter esatekorik, Cristina? Ez; Andoni? Ezerrez; nik ere ez ba.. besterik gabe bozkatzera pasako gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Printzipioz, eh... Printzipioz ez; aldeko botua aipatu dudan arrazoiarengatik. Baina hala ere egia da, txostenak erabat aldekoak ez izateak ez gaituela gehiegi lasaitzen, baina bueno, aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV-k Aldeko botua, Ezker-Batua?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Andoni-k?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aldeko botua

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta EA-k ere aldeko botua,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 10 botu (4 PNV; 1 EB-Berdeak; 1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue eta 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 10 (4 PNV; 1 EB-Berdeak; 1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue eta 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

LEHENEGOA: UDALA ETA
PROMOCIONES SALBIDE
TRUKEA: ONARTZEA,

BIGARRENGOA:
Trukaketa-kontratua dokumentu
publikoan ematea, eta, truke
bidezko ematea betetzeko, eskatu
egin behar da herri-
administrazioekin egindako
kontratuetan galdegindako
bermeak emateko, sektore
publikoko kontratazio-araudiak
adierazitako moduetako batean.

Dokumentu publikoak
zehaztaperen hauek jasoko ditu:

- Promociones Salbide,
SL-k eraikita dagoen 164,74
metro koadro inguruko behe-
solairu osoa –gutxi gorabehera
151,53 metro koadro
baliagarriren baliokidea–
emango dio Zumaiako Udalari,
hala nola solairuarean eraikitako
68,87 metro koadro inguruko
beste lokal bat –gutxi gorabehera
61,90 metro koadro baliagarriren
baliokidea–; bi-biak
“Ardantzabide” 07 HAko
bigarren partzelan daude (truke
bidezko ematearen xede diren
lokalak kokatuta dauden behe-
solairuaren plano eta
solairuarearena gehituko dira).

- Bi solairuen artean –behe-
solairua eta solairuarean– leku
bat utziko da, eskaileren bidezko
barne-komunikazioa egin ahal
izateko, proiektuan jasota dagoen
igogailu bidezko komunikazioa
gorabehera. Behe-solairua eta

PRIMERO: APROBAR LA
PERMUTA: AYUNTAMIENTO
Y PROMOCIONES SALBIDE.

SEGUNDO: Otorgar el
contrato de permuta en documento
público, debiendo requerirse, en
cumplimiento de la entrega en
permuta, la prestación de las
garantías exigidas en los contratos
celebrados con las
Administraciones Públicas en
alguna de las formas indicadas por
la normativa de contratación del
sector público.

El documento público incluirá
las siguientes determinaciones:

- La entrega por Promociones
Salbide S.L. al Ayuntamiento de
Zumaia de la totalidad de la planta
baja de aproximadamente 164,74
metros cuadrados construidos,
equivalentes a aproximadamente
151,53 metros cuadrados útiles y
de un local en la entreplanta de
aproximadamente 68,87 metros
cuadrados construidos,
equivalentes aproximadamente a
61,90 metros cuadrados útiles,
ambos en la Parcela Dos de A.U.
07 “Ardantzabide” (se
acompañará plano de la planta
baja y plano de la entreplanta en el
que se ubican los locales objeto de
la entrega en permuta).

- Entre ambas plantas, baja
y entreplanta se dejará prevista la
posible instalación de una
comunicación interna mediante
escaleras, con independencia de la
comunicación mediante ascensor
ya prevista en Proyecto. La planta

Nik eskertu Jon Gil, hemen egon izana eta esplikazioak guri eman izana, eskerrik asko, Jon

Eta bigarren puntura pasata

Andoni Etxaniz Osa, zinegotziak aurkeztutako mozioa: D3M ETA ASKATASUNA HAUTAGAI-ZERRENDEN JARDUNA ETETEAREN AURREAN.

Hau adierazi astelehenean ere aipatu nuen hau da aurreko astean plenoan tratatu zen, aurreko astean edo aurrekoan, ez naiz akordatzeko, azkenengo plenoa izan genuen aurreko astean, astelehenean, izan genuen plenoan tratatutako mozioa denok dakigun bezala ze eztabaida sortu zen, mozioa non hasi eta non bukatzen zenaren inguruan, eta eztabaida hartatik ondorioztatu zen bezala, Andoni Etxanizek pentsatu du berriz ere mozioa beste termino horietan aurkeztea.

Beraz astelehenean esan nuen, mozio hau etorriko litzakeela, berriz ere plenora, termino horietan, denok jakinen gainean egon gintezen, eta besterik gabe Andoni, zurea da hitza

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bueno aurreko plenoan, mozio hau onartzerik ez zen egon, aurrekariekin horrelako zalantza eta ez baita sortu zelako, orduetik hona kontsultaren bat edo beste egin dut, eta nik pleno hartan defendatzen nuena, ba.. egin ditudan konsultak konfirmatu besterik ez didate egin, kontua da mozioa bai guztia dela, baina mozioa bi zatitan banatzen da, alde batetik daude aurrekariak edo antecedentes, eta gero daude erabakitzen den zatia edo, erabakitzen dena mozioaren bigarren zatia da, hartzen diren erabakia bigarren zatia da; hartzen diren erabakiak bigarren zatia da, gaur dena den eztabaida hori ekiditeko intentzioarekin mozioa erabakitzen den puntuetara laburtu dut, erabakiak zuzen zuzenean hartzeko eta horrelako debate esteriletan denborarik ez galtzeko; aurrekariak bestean ere, hemen plazaratu ziren, jarri ziren mahai gainean eta gure irakurketa eta gure aurrekariak orduko berdin berdinak dira, Beraz, honako mozioa aurkezten dugu Udal Osoko Bilkurak eztabaida eta onar dezan:

- Udal honek oso larritzat jotzen du espainiar estatuak hautagai zerrenden jarduna etetearen erabakia. Erabaki honek Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta independentzia helburu duen herri sektore zabala kriminalizatzea du helburu.

- Udal honek azken aste hauetan espetxeratu, atxilotu eta prozesatuak izan diren euskal herritar guztiei gure elkartasuna adierazi nahi die eta euren askatasuna exijitzen du.

- Udal honek hurrengo martxoaren lehen baldintza hauetan ospatuko diren hauteskundeak, salbuespen egoeraren baitan egingo direla salatu nahi du. Aukera politiko guztiek baldintza berdinetan ezingo dute aritu eta legebiltzarrak ez duela Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako herritarren borondatea ordezkatzeko adierazten du.

- Udal honek gure herriak urgentziaz zatiketa, ukazioa eta menpekotasunaren marko honetatik, marko demokratiko baterako trantsizioa egin behar duela adierazten du. Marko demokratiko horrek Euskal Herria nazio gisa aitortzeaz gain, egungo zatiketa gaindituz, subjektu erabakitzailerak artikulatu behar du, euskal herritarrek proiektu politiko guztien artean, independentziarena barne, erabakitzeko eskubidea izan dezaten.

- Este Ayuntamiento considera muy grave el hecho de que el estado español haya suspendido las candidaturas electorales. Esta decisión supone un ataque violento contra los derechos de Euskal Herria y tiene como objetivo criminalizar un amplio sector de la ciudadanía cuyo objetivo es la independencia.

- Este Ayuntamiento quiere mostrar su solidaridad con todos los ciudadanos de Euskal Herria que han sido encarcelados, detenidos y procesados y exige su puesta en libertad.

- Este Ayuntamiento quiere denunciar que las próximas elecciones que se celebrarán en estas circunstancias el 1 de marzo se harán en un estado de excepción. Manifiesta que todas las opciones políticas no podrán actuar en igualdad de condiciones y que el parlamento no representará la voluntad de todos los ciudadanos de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

- Este Ayuntamiento manifiesta que nuestro pueblo tiene que hacer una transición urgente de este marco de fragmentación, negación y dependencia, hacia uno democrático. Dicho marco democrático, aparte de aceptar Euskal Herria como nación, debe de articular un sujeto decisorio, superando la fragmentación actual, para que los ciudadanos de Euskal Herria puedan decidir entre todos los proyectos políticos, incluido el de la independencia.

- Mozio honen bidez onartutakoa herritarrei zein komunikabideei jakinaraziko zaie.

- Lo aprobado mediante esta moción se difundirá tanto entre los ciudadanos como entre los medios de comunicación.

Hau da gaur hemen onartzeko ekartzen dugun mozioa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo, PNV-k?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, honezkero badira hainbat aldiz pleno honetantxe eskatu dugula mesedez, gai zerrendetan Alkateak, mozioak sartzeko asmoa baldin badu, gai zerrenda itxi aurretik gainontzeko alderdi politikoei hori adierazteko, baldin eta bateren batek badaukan aurkezten diren mozioei mozio alternatibo bat bezala planteatzeko besteren bat.

Baina, kasu honetan ere ez da egin, eta klaro urgentzia baldin bazegoen, nahiz eta diktamenik ez egon, aurrez onartu dugun puntua tratatzeko ez dugu hainbestearinoko urgentzia ikusten, ba... joan den astean antzeko mozio bat berriz ere aurkezteko, jakin da azkena guk aurkeztutako mozioa, abenduaren bostean Inaxio Uriaren erailketa gaitzesteko aurkeztu genuen mozioak ez zuela inolako presarik izan, otsailaren hamaseira bitartean, baina tira.. galdera bat daukat Andoni,

Hitzez-hitz dira puntu guztiak, aurreko moztetik, hasiera kenduta?

Bai! Bueno edozer modutara guk hau aztertu ondoren, eta jakin bageneukala oraingo honetan prestatuta mozio honentzat alternatiboa sartu ezingo duguna beste behin ere, baina bai zenbait komentario,

Aurrengo parrafoan dio “eta independentzia helburu duen herri sektore zabala kriminalizatzea du helburu” eta horri puntualizatzea dago independentzia ez dela herri sektore zabal, edo ez zabal, konkretu baten eksklusiva, eta badaudela beste herri sektore independentista batzuek, zorionez, oraindik ere behintzat, ilegalizatuak izan ez direnak.

Bigarren parrafoak, berriz, horrela eta bere horretan hotzean hartuta, ba.. azken aste hauetan (ez dakigula zenbat aste), “espetxeratu, atxilotu eta prozesatuak izan diren euskal herritar guztiak” ba.. euskal herritar asko izango ziren atxilotuak eta prozesatuak, eta mila eta bostehun arrazoi desberdinengatik, eta nahiko..., nahiko... (ez dakit ba.. zer esan), literalki hartuta, ez dakit, zabala, zabalegia iruditzen zaigu, ez?

Hirugarren parrafoan berriz dio “hauteskundeak, salbuespen egoeraren baitan egingo direla salatu nahi du” eta guk nahiko genduke ba... esan, hemen, gaur ordezkaturik gauden alderdi guztietako ezker abertzalekoak, zuen ezker abertzalekoak izan ezik, gainontzeko alderdi guztietako hautagaiak izango direla hauteskunde hauetan, eta oraindik ere ilegalizatuak izan ez

diren eta hemen ordezkatuta bagauden alderdi guzti hauek ba... zilegitasuna daukagula hauteskunde hauetara aurkezteko, eta beraz, idatzita dagoen bezala, ba.. salbuespen egoerarena ez dakit nola uler daitekeen, bakoitzak bere ulertzea egingo du baina hori ez zen...

Eta bueno, arrazoien hauengatik eta gure alternatiboa aurkezteko aukerarik izan ez dugulako, ba... gure ezezko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ezker-Batua,

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.: Simplemente decir que como en el Pleno anterior, nos abstenemos, no estamos de acuerdo con los tres primeros puntos, desde luego, hay matizaciones que... con las que no estamos de acuerdo, sin más,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Gu, gure aldetik adierazi, lehendabizi, demagogia, ez dakit, erraza izaten da askotan egitea, Inaxio Uriarenak ez baldin bazuen presarik izan, eta ez dakit izan zuen edo ez zuen, baino honek ere ez du, ohiko pleno batean gaude, koinziditu du eta punto, besterik gabe, beraz, presazko mozio bezala ez da sartu,

Eta gero mozioari dagokionez, literalki ez dugu bat egiten mozio honek esaten dituen gauza batzuekin, eta adibidez gauza batekin ez gaude ados, hor aipatzen da – Udal honek hurrengo martxoaren 1ean baldintza hauetan ospatuko diren hauteskundeak, salbuespen egoeraren baitan egingo direla salatu nahi du- ez zaigu iruditzen salbuespen egoera batean gaudenik, baina guk testua idatziko bagenuke ez genduke horrela idatziko, ez zaigulako iruditzen salbuespen egoera denik, baino bai egia da egoera anormal bat badela, ez? eta azken finean literalidadeagatik haratago, hemen dagoena da oinarrizko eskubide batzuen urraketa, garbia ez?

Eta horren aurrean, ba... beste eskubide batzuren urraketan aurrean, ba... oso zalantza gutxi dauzkagun bezala, honetan ere inongo zalantzarik ez daukagu, bakoitzaren ideologia talde biltzeko eta aurkezteko eta bere pentsakerak aurrera eramateko eskubidea, iruditzen zaigu oinarrizkoen eskubidea dela eta hemen Herri honetan aurrera eramaten ari diren hainbat ekintza, hain zuzen ere oinarrizko eskubide horien aurka dihoaz, eta beraz, literalidade horretatik haratago iruditzen zaigu funtsean hemen oinarritu eta eztabaidatu behar dena dela, hain zuzen ere, horixe, oinarrizko eskubide baten urraketa garbia eta guk horren aurrean garbi adierazten dugu, gauza bat adierazten dugun bezalaxe, adibidez, baten bizitzeko eskubidea urratzen den bezalaxe eta horren aurka gauden bezalaxe, baita ere gaude, nola ez, beste ilegalizazioen aurka eta pentsamoldeen aurka ere, eta beraz zentzu horretan eta ikusirik ze... grabedaderi buruz hitzegiten ari

garen, ba.. guk baietzkoa emango dugu nahiz eta berriz esan literalki eta adibidez, adibide hori jarri dut, guk idatziko bagenduke ez gendukeela horrela idatziko.

Beraz, gure baietzko botua izango da, PNV?

Bai, barkatu bai Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bueno, esan diren gauza batzuei erantzuna eman nahiko nieke, alde batetik mozioaren lehendabiziko puntuaren azkenengo esaldiaren irakurketa egin da eta nere ustez, irakurketa hori ba... egiten den interpretazioa ez da bertan jartzen duena, ez?

- Erabaki honek Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta independentzia helburu duen herri sektore zabala kriminalizatzea du helburu-

Hemen ez da esaten Ezker Abertzalea edo kriminalizatu nahi den Ezker Abertzalea soilik dela independentzia zalea, hori zuek interpretatu duzute eta ez dakit, zuek jakingo duzute zergatik sentitzen zareten independentzia zaleen artetik baztertuta, baina ez hemen hori horrela azaltzen delako. Uka ezina da Ezker Abertzaleak independentzia defendatu duela eta defendatuko duela eta horren alde borroka eta lan egingo duela, baina ez digu ezertxore patrimonializatu nahi eta hori horrela ulertzea ba... nere ustez gauzak ondo ulertu nahi ez izatea da.

Gero beste alderdiok aurkezteko zilegitasuna daukatzutela komentatzen duzute, guri aurkezten uzten ez gaituztenean.

Arnaldo Otegi Martin Ugalde foroan eduki zuen eztabaida batean edo egin zen ekimen batean non Joseba Egibar ere bertan zegoen eta beste alderdietako kideak ere bazeuden, argi eta garbi utzi zuen, Ezker Abertzalea beste norbait aurkezteko aukerarik ez dauzkan hauteskunde batetan ez da aurkeztuko inoiz, zeren hauteskunde batzuk legitimitate demokratikoa edukitzeko ahalbideratu behar dute opzio politiko guztiak bertan parte hartzea, eta momentu honetan hori ez da egiten, neri behintzat PNV-ren jarrera esanaz bueno –es que guk parte hartzeko badaukagu eta horrek legitimitatea ematen dio- ez dakit nork esan zuen baina nahiko esaldi xelebrea edo bada, eta erderaz ateratzen zait eta erderaz esango dut

–cuando vinieron a por los comunistas, no hice nada, como yo no era comunista; cuando vinieron a por los judios, no hice nada, como yo no era judio; cuando vinieron a por los negros, tampoco porque como yo no era negro; pero cuando vinieron a por mí nadie hizo nada, porque nadie quedaba-

Hemen, norberaren eskubide politikoak aintzat edukitzea, oso ondo dago, baina besteena ere eduki behar da, eta PNV egunen batean ilegalizatuko balukete argi eduki Ezker Abertzaleak ez zukeela parterik hartuko

hauteskunde horietan, ikusten ari gara beste alderdiak hori esateko moduan ez daudela, baino guk hori argi eta garbi esaten dugu.

Alkateak komentatu du ba.. agian salbuespen egoera bat esatea ba... gehitxo izan daitekeela, nik usten dut Zumaiian gaizki ohituta daudela, gaudela, Zumaiian, nik usten dut sortea eduki dugula eta Zumaiak ba... orain arte ez du ezagutu salbuespen egoera hori, baino politikagintzak daraman bidearekin ez da denbora asko beharko Zumaiian, Ezker Abertzaleko zerrendarik aurkezteko aukerarik edukiko ez duen, eta hemendik denbora gutxira litekeena da mahai honen inguruan Ezker Abertzaleko zinegotzirik iserita ez egotea. Momentu horretan Zumaiako Udaletxean, salbuespen egoera bat emango litzateke, bai edo ez?

Ez da salbuespen egoera hiru Diputazioetan Ezker Abertzalea ez aurkeztu ahal izatea?

Ez da salbuespen egoera herritarren %80 a bizi diren udaletxeetan Ezker Abertzalea aurkeztu ezin ahal izatea?

Ez da salbuespen egoera bat Eusko Jaurlaritzan aurkeztu ezin izatea?

Estatua oinarrizko eskubide bat urratzen ari da, hori ere esaten da, ez da salbuespen egoera bat Estatu batek oinarrizko eskubide zibilak horrela zapaltzea?

Nik usten dut salbuespen egoera batean gaudela esateko, ez garela zain egon behar salbuespen egoera hori Zumairaino ailegatzeko, eta daramagun martxarekin Zumaira iritsiko da eta egunen batean gu hemen ez gara egongo eta neri iruditzen zait Ezker Abertzalea hemen ez dagoenean salbuespen egoera batean egongo dela udaletxe hau eta Ezker Abertzalea ez dagoen erakunde bat, gaur egun salbuespen egoeran dago; PNV egongo ez balitz bezalaxe orduan ere salbuespen egoera bat izango litzateke, Ezker Batua, EA edo edozein, Herriak erabakitzen baldin badu egon behar duela eta ez baldin badago, hori salbuespen egoera bat da eta Herri borondatea aintzat ez hartzea salbuespen egoera bat ez dela ez esatea, nik usten dut gaiari duen grabedadea kendu nahi izatea dela, beraz, nik, mozio honetan esaten diren guztiak berresten ditut, horretarako aurkeztu ditugu eta benetan, gu ez gara sekula aurkeztuko beste bat aurkezteko aukerarik... beste batek aurkezteko aukerarik ez duenean,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bai, baina bestalde Ezker Abertzalea, ez dakit ze izenekin, ANV izenarekin edo beste izenen batekin, edo plataformen izenekin, adibide txiki bat jartzeagatik, Zumarragan ilegalizatua izan zen baina Urretxuko Udaletxerako hauteskunde berdinetan aurkeztu zen; edo Getarian ilegalizatua izanik Zumaiian hauteskunde salbuespen egoerapean ospatutako hauteskunde berdinetan, aurkeztu zen; eta majina bat adibide gehiago gehitu daitezke ildo horretatik, ez dakit, zenbaterainoko kontraesana dagoen oraintxe egin duzun baietztafen horrekiko, baino neri nabarmena iruditzen zait,

Bestalde, bigarrenengo parrafoan lehen aipatu dut, euskaraz irakurrita
-Udal honek azken aste hauetan espetxeratu, atxilotu eta prozesatuak izan diren euskal herritar guztiei gure elkartasuna adierazi nahi die eta euren askatasuna exijitzen du-
Eta bueno, nahiko idazteko modu zabala irudituta, erderazkoa hartu ezkerotia ez da azken asteetako kontua, baizik eta
- Este Ayuntamiento quiere mostrar su solidaridad con todos los ciudadanos de Euskal Herria que han sido encarcelados, detenidos y procesados y además exige su puesta en libertad-
Bueno..., no sé...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Itzultzailearekin hitzegin, mozioa euskaraz aurkeztu da eta mozioa euskaraz aprobaten da,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Bale, eta hirugarrenik, hirugarrenik,
Alkateak esan du nahiz eta ez egon erabat ados ba.. jartzen dituen zenbait hitz edo letrekin ba... “espiritual” ba... baietz, eta hemen “egoera larri bat ematen ari dela”, “oinarrizko eskubideak urratzen ari direla”, eta egia da, eta egia da, eta gure aurkeztu ezin izan den mozio alternatibo horretan, geu, ere, horrelako eskubide urraketen aurka agertzen gara, aipatzen ditugu, salatzen dugu egoera, exijitzen diogu Espainiako Gobernuari bertan behera utz dezan alderdien legea eta eskubide guztien defentsa egiten dugu, bai ideologia eskubidearena, bai eskubide politikoena, bai adierazpen askatasunarena, bai bizitzaren eskubidearena eta gainontzeko okurrizuen zaizkizuen guztiena. Baina guzti horren alde egoteak, gure ustetan, ez du esan nahi ba.. gustatzen ez zaizkigun hitzen alde egin behar dugunik,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, eh! M. Eugenia, barkatu, ez dut bukatu, edo ez naiz hasi, ez dakit, haria joan zait pixka baino bueno salbuespen egoerena, nik usten dut, hor salbuespen egoera ba... Ez! Salbuespen egoera nik usten dut M. Eugenia berak ere esan duela ez zinatekeela aurkeztuko baino bueno, aurkeztu zarete eta Getarian eta Zarautzen ezin izan ziren aurkeztu,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Aurkeztu gara, Getarian ere aurkeztu gara,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bai aurkeztu bai, baino ilegalizatuak izan dira; eta ilegalizatuak izan dira eta esan duzu haien solidaritatean ez zinatekeela aurkeztuko baldin eta PNV ilegalizatzen baldin bada, baina es que ez da PNV ilegalizatu duela, zuen alderdi kideak ilegalizatu dituzte Zarautzen eta Getarian eta aurkezten zarete Zumaian, beraz, askotan errealitatearekin topo egiten dugu eta ez da erraza izaten gero hitzetatik ekintzetara, askotan hor disfuntsioak egoten dira,

Salbuespen egoera, gure ustez ez da salbuespen egoera bere horretan, zeren salbuespen egoerak badauzka horrelako beste konotazio batzuk non ez den ematen, baina horrek ez du esan nahi grabedaderik ez dagoenik, hain zuzen ere nik esaten dudana da oinarrizko eskubide baten aurka dihoaztela eta hor dagoela grabedadea ez? eta azken finean iruditzen zaigula hau dena egiten dela kalkulu elektoral baten arabera eta orain dela hogeitau urte onartzen ez zena, orain itxura denez onartu egiten da, eta denoi ahaztu egiten zaigu Idigoras joaten zenean Erregearena, porque Erregearena joaten zen, orain denak apestatu batzuk dira, baino taxisean ateratzen zen, korbata jartzen zuen kamara denen aurrean; eta orain itxura denez Ezker Abertzalearekin ezin da hitzegi, ezin da ezer egin, gainera ilegalizatu egin behar dira eta ez dakit zer gauza egin behar dira eta Erregeak, Borboiak, hartu egiten zuen Idigoras bere palazioan, eta ez zen ezer gertatzen, orduan balio zuenak orain ez du balio, eta orain zergatik egiten da hori ba.. kalkulu politiko baten arabera, beste hainbat diskurtso dauden bezalaxe eh! eta ez bakarrik PP-tik eta PSOE-tikan askotan etortzen diren diskurtsoak.

Askotan pasioak eramanda edo ez dakit zerrek eramanda ahaztu egiten gara gure ekintzetan eta alde aurreko ekintzetan zer egin dugun, zeinen botuak jaso ditugun eta zertarako erabili izan diren botu horiek, askotan ahaztu egiten dira, baina egia da Ezker Abertzalea dela Herri honetako parte bat, Zumaian ikusten dugu hiru zinegotzi dauzkala eta Euskal Herrian % 10 a, % 15 a, % 5 a, direla según eta nik ez dakit, ze hauteskunde izan, eta hori uka ezina dela eta hor dagoela eta horren aurrean ezin gintezkeela gu ez itsu eta ez gor geratu ez! Eta, ba bai; literalitatetik haratago hain da grabea ekintza non gure ustez aldeko botua merezi duen,

PNV? Ezerrez; Arrazoia Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Bueno, PNV-k bilatu du bidea ba... kontra bozkatzeko, nere ustez behintzat Herri honetan gertatzen ari dena gertatzen ari dela –con la que está cayendo- ba... bueno nahiko bide... ez dakit, bakoitzak ikusiko du ze argumentazio egiten duen eta nola defendatzen duen bere postura, baino bueno, horrelako esaldi bat erabiltzea horrelako egoera baten aurrean, horrelako posizionamendua hartzea, gero kanpaina egiterakoan nola ez! Ibarretzek esango du ilegalizazioaren kontra dagoela,

alderdi legearen kontra dagoela, baina Bilbon ertzainak, ez dakit, Balzak bidali zituen, ah! bai, Balzak bidali zituen.

Kartelak pegatzen egoteagatik zeinek atxilotzen du, Herri honetan? Ah! ertzainak atxilotzen du.

Nor sartzen da Herriko tabernetan? Anda, kontxo!

Nork betearazten du?

Zein da hemen Madrilen sukurtsala?

Zeinek egiten du, azkenean esaten duenaren kontrakoa? Hori horrela da, zoritxarrez, eta gaur hemen berriz ere konfirmatzen da, alderdi legearen kontra daudela esan, baino alderdi legeak ahalbidetzen dituen hutsune denak, beroiek beti betetzeko prest, -quitate tú que ya me pongo yo; quitale a ése que ya me pongo yo-

Gero beste alde batetik baita ere hemen esan da Ezker Abertzalearen ilegalizazioa datorrela kalkulu politiko zehatz batzuren ondotik, ez? Bere garaian komeni zen leku batzuetan agertzea, beste batzuetan ez da komeni eta diskrezionalidade bat badagoela aitortzen da, momentu honetan badirudi Patxi Lehendakari, hitz esaldi hori, ba... ondo borobiltzeko Ezker Abertzalea traba bat zela eta kalkulu politikoak egin dituztela eta Ezker Abertzalea kentzea baino zer hobeagorik ez, hori lortzeko.

Beraz, alderdi politiko bat ilegalizatzen denean beste alderdi politiko baten kalkuluen arabera, hori baino salbuespen egoera nabarmenagoa, hori baino demokraziaren zikinkeria eta urbidumbre (ateratzen zait erderaz) haundiagoa, neri zer komeni zait, aurkeztea edo ez, kalkuluak botatzen ditut, matematika egiten dut, Ui! Ez, ez daitezela aukeztu. Los ilegalizo. Orduan hemen alderdi politiko bat da Juez y parte, eta hori aitortu egiten da eta demokrazian botereen inongo banaketa ez dagoela bide batez ere onartu egiten da, baino hala ere ez dakit, zergatik ez da onartzen salbuespen egoera batean ez gaudela, hemen gaur egun batzuk legalak baldin bagara edo ilegalak izan behar baldin bagara, hori badakigu nork erabakitzen duen, hori alderdi politikoek erabakitzen dute, eta alderdi politiko batzuk beste alderdi politiko batzuren legalidade inguruan erabakitzea, neretzako behintzat salbuespen egoera da inongo zalantzarik gabe,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: PNV,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Okurritu zait, galdera bat baita, zeinek bota zituzten cóctel molotov-ak Bilboko Alde Zaharreko Batzokiaren aurka?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Hemen eserita dagoen inork, ez dakit, neri galdera asko okurritzen zaizkit baita ere, baino gaur hemen tratatzen

ari garen gaiarekin inongo zer ikusirik ez daukate, galderak egiten hasita ba... egon gaitezke berriz ere gaueko hamabiak arte.

Baino, gaur hemen jorratzen ari garen gaia, hemen dago eta hemen dagoenaren harira egin diezazkideazu galderak, faborez, hemen ez dut uste esaten denik, Batzokietara cóctel molotov-ak botatzea ondo dagoenik eta hori onartzeko ez dizut sekula eskatuko,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Zu joan zara lehengo zapatuko edo aurreko zapatuko manifestaziora, ez ni!

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Zer esan nahi duzu, horrekin?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Esaten didazula, galderak egin ditzakeela, bakar-bakarrik hemen ekarritako mozioaren inguruan, baina ez! Galdera zihoan ba.. zuk mozio horren defentsan egin duzun argumentazioan, zenbait adibide jarri dituzulako, galdera batzuk egin dituzu, galdera horiek erantzun eta guzti horren inguruan, ba.. balorazio batzuk datozte eskutik eta hori entzuten ari nintzela ba.. okurritu zait neri gero egin dizudan galdera motz hori egitea, Orduan kontestuan bazetorren,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Neri galdetuta, erantzuten saiatuko naiz, kontua da, ez dakit, Bilboko Batzokira cóctel molotov batzuk bota zirelako Ezker Abertzalea ilegalizatzea ondo dago?

Neri beste galdera bat okurritzen zait. Nik ez dut babestuko ekintza hori. Neri ez zait egokia iruditzen ekintza hori eta neretzako ez du ezer onik ekartzen ekintza horrek, baino ekintza hori norbaitek pertsona zehatz batzuk egin dutelako, Ezker Abertzalea ondo dagoela ilegalizatzea, ondorioztatu behar dut?

Zergatik ez dut ulertzen zer justifikatu nahi duzun Batzokira cóctel molotov batzuk bota zituztelako. Ez dut ulertzen zertarako ekartzen duzun kontu hori, hona, nik bakarrik esan dudana da, alderdi batzuk gauza batzuk esan eta gero beste erabaki politiko batzuk hartzen dituztela, nik ez nuen erabaki politikorik hartu Batzokiaren kontra ezer egiteko, baino beste batzuk bai hartu zuten erabaki politikoa Bilboko kalea ertzainaz jozteko, pelotero, eskudo, pipa, porra, gas, txorro dena delakoarekin, han geundenak akोजना, akोजना, akोजना eginda eduki eta ez bozkatzeko eskubidea bakarrik ez, ez da manifestaziorako eskubiderik ez zaigu aitortzen, zapaldu, zapaldu eta zapaldu eta Estatuak Herri bat zapaldu,

zapaldu, zapaldu eta zapaldu egiten duenean, ba.. gero zoritxarrez, zoritxarrez, horrelako gauzak gertatzen dira.

Baino horrelako gauzak gertatzen direlako Ezker Abertzalea ilegalizatu egin behar da?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Guk, oraindik ere ez baldin badakizu ere, betidanik esan dugu 2002an onartu zenetik alderdiaren legea, legearen aurka gaudela eta ilegalizazioen aurka gaudela eta desde luego Bilboko Batzokira cóctela botatzeagatik Ezker Abertzalea ez da ilegalizatu behar, Ezker Abertzalea ez da ilegalizatu behar, ez zuten ilegalizatu behar, eta guk alderdi bezala beti adierazi dugu horren kontrako iritzia, besterik gabe,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Bueno, ez dakit, nik usten dut nahiko eztabaidatu dugula, besterik gabe bozkatzera pasako gara, PNV-k?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Kontra,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Kontrako botua, Ezker-Batua?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Abstentzioa,

CRISTINA FORCADA UNANUE AND .: Abstentzioa

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua, Andoni-k?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.: Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Aldeko botua eta EAk ere aldeko botua,

ERABAKI ZATIA

PARTE RESOLUTIVA

Aldeko botuak: 5 botu (1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue eta 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)

Votos a favor: 5 (1 Andoni Etxaniz Osa, 1 Nerea Epelde Azkue eta 1 Joseba Josu Azpiazu Azkarraga; 2 EA)

Aurkako botuak: 4 (PNV)
Abstentzioak: (1 EB-Berdeak;)

Votos en contra: 4 (PNV)
Abstenciones: 1 (EB-Berdeak)

LEHENENGOA: Andoni Etxaniz Osa, aurkeztutako mozioa: D3M ETA ASKATASUNA HAUTAGAI-ZERRENDEN JARDUNA ETETEAREN AURREAN.

PRIMERO: APROBAR LA MOCION PRESENTADA por Andoni Etxaniz Osa, ANTE LA SUSPENSION DE LAS CANDIDATURAS ELECTORALES DE D3M Y ASKATASUNA,

Eta azkenik laugarren puntua, Eskari-Galderak, norbaitek zer bait esateko, M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Aukera ematen zaigunez, daukagun galdera dihoa diru kontuaren ingurutik, 2008ko likidazioaren arabera, FOFIM-aren jaitsiera ikaragarria, ez dakit zenbat ziren... 70 miloi pezeta?, ez dakit, ez naiz akordatzen, baina bueno dena den zenbakiak hor daude, iragarrita dago eta badakizute zenbaterainokoa izan zen; galdera da nola geratzen den azkenean kontu hori?

Noiz itzuli beharra daukazu.

2009ko aurrekontuetan kontutan izan den itzulera hori, edo ez.

Eta 2009ko kontuak, diru kontu publikoak ere antzeko bidetik dihoaztenez oraingoz eta badirudienez FOFIM-a aurreikusitakoa baino gutxiagoa izango dela, bi gauza horiek txertatuz, ze neurri aurreikusi dituzuen eta nola dagoen hori islatuta edo ez, udal aurrekontuetan?

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Ez dakit, Joseba zuk erantzungo duzun edo Liobak,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Nik dakidana da, 2008ko aurrekontuari dagokionez, seirehun mila € , usten dut, itzuli behar dugula, ez, Lioba? Oker ez banago, orain dela hilabete batzuk lauhun eta y pico esan zigun eta gaur bertan enteratu naiz seirehun mila € direla.

LIOBA MAIZA RECONDO, IDAZKARIA.: Seirehun eta luze, bai; seirehun eta hirurogeita hamar pico mila, es que taula behean daukat baino bai, bai

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Ez dakit, noiz itzuli behar diren, ez dakit..

LIOBA MAIZA RECONDO, IDAZKARIA.: Diputazioak ematen du epeka egiteko aukera, baina hori erabaki behar da. Nik esaten dudana da Diputazioak hurrengo urterako aurreikusi du lehenago baldin baziren 2008an bost miloi eta zazpirehun mila € orain bost miloi eta seirehun. Nere ustez ere aurreikuspen hori egitea, dagoen egoerarekin ere igual erantzunkizuna da Diputazioarena aurrekontu hori jartzean, Udaletxe gehienak Diputazioak esandako aurrekontuak ezartzen dituzte bere aurrekontuetan 2009rako baino ikusten den egoerarekin gero negatiboa datorrenean horrek ere desorekatu egiten du udaletxeko aurrekontua.

Orduan 2008koa zatika egin daiteke, erabaki politikoa izango da eta 2009koa ba... Diputazioak ez du esan ezer oraindik eta nere ustez esan beharko luke igual... aurrekontua gutxitzea izango litzateke hoberena, Baina ez du ezer esan, orduan neri ez zait... pixkat ausarta ezartzea bost miloi seirehun mila ikusita dagoen egoera eta udaletxeen aurrekontuari sortuko dion eragina.

Baino bueno Diputazioko datua hori izan da eta hori ezarri da aurrekontuan bost miloi seirehun mila, nik ezin dut ezarri beste datu bat. Beste gauza bat da egoera orain dagoen bezala ba....

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.:Nik aurreko plenoan nahi nuen esan, baina azkenean ez nuen esan, guk jarri dugun datua 2009koa da Diputazioak esandakoa, zuek egiten zenuten bezala, nik galdetzen nuenean aurreko legealdian datu hori nondik ateratzen zen, esaten zidan orduan Asier Esnalek ba.. Diputazioak ezartzen zuela eta gero urtean zehar hiru aldiz edo notifikatzen du, hasieran zenbat jarri behar den, gero likidazioa eta azkenean, bukaeran beste bat.

Aurten zer egingo duen, krisia dela eta, ez dakit. Baina, guk jarri dugu berak esandakoa,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Eta beti, beti botatzen edo aurpegiratzen ziozun Asierri, likidazioak aurkezten zituenean eta superabitak zeuzkala esaten ziozunean, ba.. FOFIM-a gutxiegi ezartzen zuela. Harek erantzuten zizun Diputazioak esandakoa izaten zela, eta zuk

egiten zenuena zen eskatzea aurrez, udalak irudikatu zezan FOFIM-aren likidazioa adierazitakoa baino gehiago izango zela.

Eta orain alderantzizko kasua izango da tamalez, baina ez dizut esaten 2009koan kontutan ezartzeko beraiek proposatutako aurrelikidazioa, baizik eta dagoeneko seirehun mila eta gehiago € diren kopuru horiek, orain dela bi hilabetetik ere badakigu (zenbat ziren, ez dakit) laurehun mila izango zirela gutxienez, ba.. hori itzultzea aurreikusita dagoen edo non kabitzen den itzuli beharreko kopuru hori 2009ko aurrekontuetan,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Nik ez nion esaten Asierri gutxi jartzen zuela, nik esaten nion jakin da urtez-urte esandakoa baino gehiago ematen zutela gero, nahiz eta orain alderantziz den, gastuak gehiago jarriko nituela, ba.. superabit hori ez egiteko; ez diru sarrerak gutxiago jartze... edo gehiago jartzeko. Hori ez nion esaten,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Barkatu, Asierrek jartzen baldin bazuen, zuk jarri duzun bezalaxe Diputazioak adierazten zion kopurua, eta gastuak eta sarrerak orduan gaur bezala kuadratu behar badute edozein aurrekontuetan, orduan ezin zituen gastu gehiago sartu baldin eta ez bazuen sarrera kapitulua edo sarrera partida gehitzen,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA.: Baina momentu horretan argi zegoen likidazioa gehiago izango zela, ni egon nintzen lau urtean zuen legegaldian, azkenengo aurrekontua ikusi dudana zuek egin zenutena likidazioan oker ez baldin banago Diputazioak hasieran esan zuenetik zuenarekin konparatuta bostehun mila € gehiago etorri ziren, eta justu hasi da hau, gu sartu garenean, besterik gabe, baina bueno..

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.: Eta zoritxarrez, orduan zuretzat hain argi baldin bazegoen likidazioa gehiago izango zela, berriz ere diot, zoritxarrez, denontzat eta herriarentzat ba... aurten badirudi aurreikusten dugula, Liobak oraintxe aipatu duen bezala, gutxiago izan daitekeela,

Baina gu ez gara ari eskatzen, Diputazioak bidalitako aurrepredikzioa baino gutxiago edo gehiago jartzea, zeren azken finean udalak ez dauzka Diputazioan diru sarreren kalkuluak egiteko tresnak, baina bai 2008koak jakinda, galdetzen dugu berriz ere izan duen akomodorik, baduen lekurik 2009rako onartu den aurrekontuan, non edo non aurreikusita dagoen itzulera hori,

LIOBA MAIZA RECONDO, IDAZKARIA.: Likidazioa egitean, ikusi beharko da zenbat den gerakina, orduan hor FOFIM-aren bueltaketa nola egingo den edo batera edo urteetan banatuta eta daukagun defizitarekin ba hor ikusiko da ze diferentzi egon daitekeen, kreditua eskatu behar baldin bada edo ez? o sea que hori martxo bukaeran, apirilean, likidazioa egiterakoan hori erabaki beharko da,

ALKATE-LEHENDAKARIA.: Oso ondo, eskerrik asko, beste bateren batek zeozer esatekorik? Ezerrez, ba... eskerrik asko

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko zortzirik eta hamar minutu direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las veinte horas diez minutos y yo la Secretaría doy fé,

Alkateak,

Idazkariak,